

# Antxiñako fotografixia



## MURGIXA ETA BEREZAOKO UDAKO ESKOLIA

Murgixa eta Berezaon udaran eskolia egoten zen. Bertara auzoko umeez gain, kale ume asko ere joaten ziren, adin desberdinetakoak gehienak. Argazki honetan ikusten da, familia bereko anae-arreba ugari agertzen direla, orduan halaxe denak batera joaten zirelako udako eskola honetara. Udara guztian zehar egoten zan eskolia eta bertako andereñoa Mari Angeles Goñi izan zen hiru urtetan zehar. Argazki hau 1947 inguruan ateratakoa da.

Bertan agertzen direnak:

Goian eta zutik: ezezaguna, Juanito Altube, Antonio Garai (Agustinua), Jose Luis Oleaga, ezezaguna, ezezaguna.

Erdiko ilaran: Maria Pilar Altube (Murgialdai), Juanita Altube (Murgialdai), Mari Angeles Goñi (andereñoa), Bizenta Arregi (Errota), Mari Paz Zarraoa, Mari Tere Letamendi (San Esteban), Mari Niebes Letamendi (San Esteban) eta Fermin Galdos (Murgialdai Behekoa).

Lehenengo ilaran: Txaro Azpiazu, Arantxa Galdos (Murgialdai Behekoa), Mertxe Galdos (Murgialdai Behekoa), Mari Tere Galdos (Murgialdai Behekoa), Aurora Beitia (Santa Kruz), Tomas Errasti, Bitoria Arregi (Errota), Rosario Altube (Murgialdai), Kontxita Altube (Murgialdai), Mari Tere Beitia (Santa Kruz), Luis Moiuia, Juanita Arriaran eta Arantxa Goenaga.

Argazkia: Maria Angeles Goñi.

Argibideak Bitoria Arregi eta Iñazio Inzarenak.

### OHARRA:

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituz, zatoz!

# FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



GURE ESKUALDE ETA  
EUSKADIREKIN  
ZERBITZUAN

ELKARLANEAN  
ARITZEN DAKIEN  
AGERBIDEA

## HARITZA



- Paperdenda
- Liburdenda
- Lotoak
- Opariak

Kale Zaharra, 4  
Tfnoa: 78 23 96